



Ermuan, 2017ko irailaren 19an

Juan Carlos Abascal Candásek, indarreko araudian ezarritakoaren babesean, turismoaren inguruan Alderdi Popularrak aurkeztu duen mozioari ondoko ZUZENKETA egiteko ohorea du

ZUZENKETA

- 1- Ermuko Udalak turismo sektoreko langile, enpresari eta autonomoenganako babesa adierazten du. Turismoa lehen mailako sektore ekonomiko eta kulturala da, aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzen duena, bai eta ere gizarte kohesioa eragiten, eta gizarte barneratzaile eta toleranteak garatzen.
- 2- Ermuko Udalak interes turistikoen, turista eta eraikin publikoen kontra uda honetan izan diren indarkeria eta bortxakeriazko ekintzak gaitzesten ditu, eztabaida sortzeko barik, Euskadiren irudi txarra hedatzeko baino balio izan ez duen kanpaina baten baitan eginak izan direlako.
- 3- Ermuko Udalak turismo jasangarri, orekatu, antolatu eta kalitatezkoaren alde lan egiten jarraitzera animatzen du Eusko Jaurlaritza, ingurumenarekin, gure bizi-modu eta kulturarekin adeitsua izatearekin batera, sektoreko agente guztiak aintzakotzat dituen alderdi politiko eta erakundeen adostasunaren emaitza delako.